SALLABENTEKARIA

2011ko AZAOA. 24. ZENBAKIA

# ASTEBETE INGELESEZ






6. mailakoak Gazteizera joan dira ingelesa sakontzera. Jolasak, aktibitate ezberdinak, klaseak, jaialdiak... Era guztietako ekintzak ingelesez egin dituzte. Irakasleak ingelesa bakarrik zekitenez, gure ikasleak, ez dute beste erremediorik izan eta hizkuntza horretan komunikatu behar izan dute beraiekin.

Gainera, beste eskola batzutetako ikasleak ere egon direnez lagun berriak egin dituzte.

Noski, gauean , parranda ere egin dute, horregatik, etxera heldu direnean inoiz baino lo gehiago egin dute.

# BERRIAK

## ESKOLAKO BLOGAK BERRIRO MARTXAN




Iazko ikasturtean gelako blogak lantzen hasi ginen, eta aurten proiektu horrekin jarraitzeko asmoa dugu. Kurtso ezberdinetako blogetan eskolan egiten diren ekintzen berri izango duzu: Irteerak, gelako lanak, ekintza bereziak... Gainera, nagusienak, beraiek arduratuko dira berriak publikatzen.
Hau da blogaren helbidea:
sanlorenzoeskola.blogspot.com

## PERRETXIKO ERAKUSKETAN

Urtero bezala, San Lorenzo eskolak Ermuan ospatzen den jardunaldi mikologikoetan parte hartu du. Natura tailerrean egindako lanak, Herriko plazan erakutsi zituzten





## MEDIO AMBIENTE SOSTENIBLE

Un curso más en San Lorenzo llevaremos a cabo el proyecto Agenda 21. Nos encargamos de reciclar los residuos de papeles y plásticos que guardamos en diferentes contenedores. También revisamos que los grifos y las luces no estén en funcionamiento cuando no sea necesario.
Además este año desarrollaremos el tema de la “movilidad sostenible”

# HAUR HEZKUNTZA



## IKASLE BERRIAK

Hona hemen 2 urteko gelako ikasle batzuk. Jolasteko eta lanerako energia asko erakusten ari dira.

## 3 URTEKO GELAN

"Hiru txerrikumeak" ipuina kontatu eta antzeztu dugu. Gero kareta polit hauek egin ditugu.
Bukatzeko, pozaren pozez abestu dugu:
*Txerrikumeak, texerrikumeak gara gu*
*Egiten dugu Kurrin, kurrin...*






## 4 ETA 5 URTEKOAK OÑATIKO NATUR-ESKOLAN



Baserrietan dauden animaliak ikusi eta ikutu ahal izan ditgu.
Udazkeneko ezaugarriak inguruetako mendietan disfrutatu ditugu: osto desberdinak bildu, ezkurrak, intxaurrak eta urrak batu...
Beste alde batetik 5 urtekoek ogia egin dugu, eta 4 urtekoek kandelak.



# 1. ZIKLOA



Lehenengo ziklokoak Izenaduba parke mitologikora joan gara.

Bertan ikus-entzuneko muntaien eta joko interaktiboen bidez , Euskal mitologiaren pertsonaiak ezagutu ditugu (lamia, gentilak, galtzagorriak, Mari-teilatuko, Anbotoko



IZENADUBA

Bertan, Olentzeroren etxean izan gara. Baina zoritxarrez Olentzero ez dugu ikusi, mendian ikatza egiten zegoelako.Bisita oso interesgarria izan da eta ondo pasatu dugu.



MUNDUKO OHITURA DESBERDINAK EZAGUTZEN.



GAUZA-BITXIAK

BadaKizu nola agurtzen duten elKar inuiteK? Musu ematen dutela dirudi.

Hemen, ez dute esKua ematen: Kopeta eta masailaK usaintzen dizKiote elKarri. Arren, ez egin proba hotzeria baduzu!!

EZAGUTU ONDOREN HONELAKO LAN TXUKUNAK BURUTZEN DITUGU.



# 2. ZIKLOA





## NATURA MAITE DUGU

Urriak 11an 4. mailakoek Natura tailer bat izan genuen. Oso interesgarria izan zen eta gauza asko ikasi genuen: landareen zatiak, nutrizioa, ugalketa...
Gainera azkenean mota desberdinetako haziak erein genituen : babak, babarurunak, espinakak, kipula, letxuga, garia….
Begiratu gaur egun zelako landareak hazi diren! Laister ortuan landako ditugu eta seguro izugarrizko uzta jasoko dugula.












## 3. MAILAKOAK GIMNASTA TREBEAK

3. mailakoak Gorputz Hezkuntzako saioetan primeran iblltzen dira. Era guztietako ariketak egiten dute: oreka, saltoak, desplazamenduak... Baina gehien gustatzen zaiena taldeko jolasak egitea da.



# 3. ZIKLOA

## KOSTALDEA AZTERTZEN



5 mailakoak Debara joan ginen kostaldearen aberastasuna eta ingurumenaren eta bere ekosistemen egoera aztertzera: uraren gardetasuna, tenperatura, nitratoak, fosfatoak, ph-a, oxigeno disolbatua...
Ermuko eskola guztiak han geunden, eskola bakoitzak hondartzaren zati bat aztertu genuen eta baita garbitu ere.



Toki horretan egon behar ez liratekeen objektuak zeuden: altzariak eta tamaina handiko objektu metalikoak, gurpilak, aerosolak, etabar..

ZAINDU DEZAGUN NATURA ! ! !

## LA CARTA

En 6º estamos aprendiendo a escribir cartas. A ver si os gusta esta. Blancanieves le escribe a Cenicienta.

Bosque Encantado. Martes 2 de octubre.

Hola Cenicienta:

¿Cómo estás? Yo estoy muy bien. ¿A dónde has ido de vacaciones? Yo sigo aquí, en el Bosque Encantado, porque en el castillo hay muchas cosas que hacer: decorar, barrer...

Hoy he ido a visitar a los enanitos porque es el cumpleaños de Gruñón. Lo pasamos muy bien, hicimos una tarta de manzana. Gruñón abrió los regalos. Yo le he regalado un gorro verde. Luego bailamos con los animales... Los enanitos me dijeron que te echaban de menos porque no te ven desde hace mucho tiempo.

A ver si quedamos un día en el castillo a tomar un café.

Un beso muy grande.

Blancanieves

P.D: recuerdos para los ratoncitos y la hada madrina.



Andrea Gómez

# ASMAKIZUNAK

Mundu guztiak dauka
Mundu guztiak eramaten du.
Denei ipintzen diete bat
Mundura etortzen direnean

Julen

izena

Bere etxetik atera gabe leku guztietatik pasatzen da.
Zer da?

Lidia

Marraskiloa

Uretan bizi da.
Gorputzarekin ura botatzen du
Oso haundia da.
Zer da?

Alaitz/ Nahiua

balea

Atzo gauean, osaba irakurtzen ari zela, izebak argia itzali zuen. Gela ilun ilun gelditu zen, baina osabak irakurtzen jarraitu zuen. Ezer gertatu ez balitz bezala. Nola da posible?

Ilenia/June

Osaba itsua da eta braile sistema erabiliz ari zen irakurtzen

Amak 2 ditu,
aitak ere bai,
semeak bat ere ez
eta alabak hiru

Iman

A letra

Bi horma zuri artean
lore hori bat ateratzen daa
Zer da?

Naia

Arrautza frejitua

Zer dala eta zer dala, aurrean punta bi eta zulo bi atzean.

José/Miren

Artaziak

Baserrian egoten da
zaunka egiten du eta
korrika egiten du

Josu

txakurra

Barrutik gorria,
kanpotik berdea,
eta afrikatarrak barruan bizi dira

Safia

Sandia
(afrikatarrak sandiako
pepitak dira)



















# ZEIN DA ZURE ALDE ONA?
# ZEIN AKATS DAUKAZU?





## MIKEL

Pazientzia asko daukat.

Asko hitz egiten dut. Oso par-lantxina naiz.



## MARTA

Lagunekin oso jatorra naiz

Asko ohiuka-tzen dut.

## NURIA

Me porto muy bien.

Soy un poquito marimando-na



## KOULE

Hago amigos con facili-dad.

Cuando me enfado me pongo como una loca.





## LEIRE

Lagunei nire gauzak uzten dizkiet.

Batzutan, negar gutxia-go egin behar dut



## GARAZI

Langilea naiz

Pazientzia gutxi dau-kat aita eta amare-kin.